

**UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO  
DEIALDIA (2018):  
III MODALITATEA**  
**Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-  
betiko zerrenda**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko martxoaren 5en onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

**UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2018)**

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean, zerrendan bertan adierazita zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ERABAKI DU ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da. Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei lehenbailehen erantzuteko asmoz, eskatzen da kontsulta guztiak posta elektronikoz egiteko, helbide honetara idatzita: [pre-postdoc.dqi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dqi@ehu.eus) . **Mezuaren gaien hau jarri: "Ikertzaileak prestatzeko deialdia".**

Leioa, 2018ko abenduaren 27a.

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA**  
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

**I. ERANSKINA**  
**Balioetsiko diren eskari onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

Kodea	NAN	BEHIN BETIKO EMAITZA. EBALUAKETA IZAPIDERA
PIFBUR18/01	76088905Y	ONARTUA
PIFBUR18/02	72535275Z	ONARTUA
PIFBUR18/03	45786620Z	ONARTUA
PIFBUR18/04	080140200026	ONARTUA
PIFBUR18/05	15CF20193	ONARTUA
PIFBUR18/06	45754529P	ONARTUA
PIFBUR18/07	130317202074	ONARTUA
PIFBUR18/08	77216351S	ONARTUA
PIFBUR18/09	16098012J	ONARTUA
PIFBUR18/10	LR0572661	ONARTUA